

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Egin behar dugun jarduera honetan baliabide batzuk beharrezkoak izango ditugu. Ez ditugu autobus normalak erabiliko, kutsatzen ez dutenak erabiliko ditugu, gure helburuetako bat ez kutsatzea delako. Motorra gasolinarik gabe funtzionatzeko prest dauden ibilgailuak erabiliko ditugunez, ez dugu gasolinarik beharko, eguzki plakak baizik. Horiek dira hasiera batean beharko ditugun baliabideak.

Erabiliko dugun materiala autobusa eta eguzki plakak dira. Eguzkiaren energiaz (eguzki-izpiez) baliatuko gara. Hauek autobusa martxan jartzeaz gain, bateria moduko batean gordeko dira. Nahiz eta autobusa ez egon martxan, energia gordetzen joango da, hortaz egun eguzkitsu batean, energia pila lor dezakegu. Gauetan, hau da, argirik ez dagoenean, lehenago gordetako energia erabili ahal izango dugu.

Ez hori bakarrik, autobuseko gurpilek bere mugimenduan sortzen duten energia ere gordeko da automatikoki beste bateri kaxa batean. Energia hori ere garbia da eta ez du kutsatzen, hortaz, erabil dezakegu. Martxan dabilenean sortzen den energia denez, guztiz dohain da.